

## Ingurumen Jasangarritasun Politika

**DONOSTIALDEKO ESI**an **JAKIN BADA**KIGU, asistentziari, ikerketari eta irakaskuntzari dagokion jarduera garatzen dugunean, onartu behar dugula gure jokabideek eta lan-ohiturek inpaktu garrantzitsua dutela ingurunean.

Horren adierazle da, **BETI GOGOAN** IZAN DUGULA INGURUNEAREKIKO **BEGIRUNEA**, bai 2015eko ESiko estrategia zehazterakoan bai 2017ko gogoeta estrategikoan, non gure erakundeko profesionalak parte hartu duten.

Kontuan harturik ESiko estrategia, Ingurunearen Jasangarritasun Politika eta 2016ko Kanpo Ebaluaketaren emaitza, eta, onarturik **GURE LEHEN HELBURUA** ingurumenaren babes, aurkako inpaktua txikiagotzea dela, bereziki hondakin sanitarioen kudeaketatik eta sorreratik eratorritakoak, **ONDORENGO JARDUNBIDEAK** zehaztu ditugu:


- *Gure jardueraren ondorioz sortutako hondakinak murriztea eta behar bezala kudeatzea.*
- *Energiaren kontsumoa optimizatzea.*
- *Urriak diren ondasunen kontsumoa optimizatzea.*
- *Isurpen kutsatzaileak kontrolatzea eta murriztea*
- *Erakundeko langileen, hornitzaileen eta erabiltzaileen ingurunearekiko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa bultzatzea.*
- *Jasangarritasun Politikako irizpide baloragarriak txertatzea erosketa eta kontratazio politikan, eta sustatzea energetikoki efizienteak diren produktuak erostea eta zerbitzuak kontratatzea.*
- *Ingurunea babesteko indarrean dagoen araudia betetzea eta, ahal den neurrian, etorkizunean onar daitezkeen legezko xedapenei aurrea hartzea.*
- *Erakundeak bere borondatez hitzartu dituen ingurune baldintzak betetzea.*

Horregatik guztiagatik, **DONOSTIALDEKO ESI**an **HITZEMATEN DUGU**:

**Jokabide leerro hauek zabalduko ditugula eta eguneroko lana garatuko dugula, babes marko baten barruan eta ingurunea errespetatuz, bai gure jarduera asistentzian bai irakaskuntzako eta ikerketako eremuan, profesionalak eta interes-taldeak konprometituz ingurunea babesteko helburuak zehaztuz eta lortuz.**

*Ingurunearen Jasangarritasun Politika hau zabalduko dugula langileen, interes-taldeen eta herritarren artean, ezarritako helburuak lortzeko asmoz.*

Donostia, 2023ko martxoa



**DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA**

**GERENTZIAKO ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN GERENCIA**

**Agustín Agirre Aranburu  
(Donostialdeko ESiko zuzendari gerentea)**

